

ATRAE 2026 DEIALDIA- TALENTU FINKATUA ERAKARTZEKO DEIALDIA

▪ Deialdiaren xedea:

Ikerketa talentu finkatua barneratzea erraztea, nazioartean ospe handia duena, eta duela gutxi atzerrian bere lanbide-jardueraren aldi garrantzitsu bate gin duena. Helburua da Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema (SECTI) lehiakorrago baterantz aurrera egitea, berau sustatzeko, estatu mailan eta nazioartean.

▪ Eskatzailearen bete beharreko baldintzak (deialdiaren 6. Artikuluan ezarritakoaren arabera):

- Doktore gradua 2019/01/01a baino lehenagokoa izan behar du.
- Atzerriko ikerketa-erakundeekiko lotura profesionala eduki izana, gutxienez 5 urtekoa, 2020/01/01etik eta eskabideak aurkezteko epea hasi arte.
- Ikertzaile bakoitzeko eskaera bakarra aurkeztea
- Eskaria EHUren bitartez aurkezteko beharrezkoa da EHUko ikerketa talde baten babesa egiaztatzea eta Sail Kontseiluaren onarpena izatea.

▪ Eskaerak aurkezteko jarraibideak

1. Interes-adierazpena bidaltzea. Barne epea **2026ko maiatzaren 25a**

EHUko ikertzaile batek **INTERES-ADIERAZPENA** bidali behar du digitalki sinatua (argitaratutako VRI ereduaren arabera) rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbidera. Identifikazioa errazteko gaian "ATRAE 2026 DEIALDIA" adieraziko da.

GARRANTZITSUA: UPV/EHUK ezin du une honetan baieztatu deialdi honetan zenbat plaza bermatu ahal izango dituen. Jasotako interés-adierazpenak aztertu ondoren, erabilgarri dagoen kupoa bete arte eskaerak lehenetsiko dira, egokitasun-irizpideak kontuan hartuta eta proposamena erakundeak zehaztutako arlo estrategikoekin bat datorren aintzat hartuta.

Baldintza berberetan daudenen artean bi hizkuntza ofizialetako gaitasuna hartuko da kontuan.

Ikerketa Errektoreordetza aukeratutako pertsonekin harremanetan jarriko da, beharrezko dokumentazioa bidal dezaten.

2. Beharrezko gainerako dokumentuak bidaltzea. Barne epea **2026ko maiatzaren 29a**

1. **Inprimaki elektronikorako txantiloa** (Ikertzaile nagusiari bidaliko da Ikerkuntza Errektoreordetzatik, interes-adierazpena lehenetsi ondoren)
2. **Memoria Zientifiko-Teknikoa.** Dokumentuaren eredua eta jarribideak AEIren web orrian argitaratuta daude.
3. **Proposatutako pertsonaren CVA.** Dokumentuaren eredua eta jarribideak AEIren web orrian argitaratuta daude.
4. **Proposatutako hautagaiaren aldeko erreferentzia gutunak edo babes-adierazpenak** Dokumentu bakar batean erantsiko dira

GARRANTZITSUA: Eskaera nahitaez UPV/EHUko Ikerketa-zerbitzu orrokorrak grabatuko duenez, teknikari arduradunak Ikertzaile nagusiari bilera telematiko bat egitea eskatu ahal izango dio, datuak aplikazioan batera sartzeko eta egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

Informazio gehiago:

DEIALDIA AEI: <https://www.aei.gob.es/eu/deiak/deiak-bilatzailea/ayudas-incentivar-incorporacion-talento-consolidado-programa-atrae-2026-1>

Harremanak UPV/EHU

Emaila: rrhh-inves.dgi@ehu.eus